

LH 5 eta 6
mailak

HERRITARREN EROSKETA OHITUREN AZTERKETA

Aurtengo ikasturtean EA21ean *Ekoizpen eta Kontsumo Jasangarrria* landuko dugu. Gaia oso zabala bada ere, zuek, **herritarrek dituzten kontsumo ohiturak** aztertuko dituzue. 2017an Urola Erdiko merkataritza mahaiak, kontsumo ohituren azterketa egin zuen Urola Erdian. Diagnostiko honen helburua, herritarren kontsumo ohiturak ezagutzea izan zen. Baita herritarrek bertako saltokiez duten iritzia ezagutzea ere. Diagnostiko honetan atera ziren ondorioetan oinarrituta, zuek ere zeuen familietan dituzuen ohituren azterketa egingo duzue galdetegi baten bidez. Horiek aztertu ondoren, hobekuntza proposamenak aterako dituzue, alkateari jakinaraziko dizkiozuenak.

Egin beharreko azterketa hau, 4 ataletan banatu dugu: erosketa ohiturak, Interneten erabilera, Jasangarritasuna eta azkenik, Azpeitia, zuren herriaren inguruan hausnartzera gonbidatuko zaituztegu.

Nola bete galdetegia? Galdetegia interneten bete beharko duzue eta bidali. Horretarako, zuen irakasleak emango dizue klabea. Inkesta guztiak jasotzen ditugunean, Ekoetxeakoak arduratuko gara emaitzak atera eta ikastetxera bidaltzeaz zuek ondorioak atera ditzazuen. Dena den, emaitzak gure web orrian ere zintzilikatuko ditugu: www.ingurugiroetxea.org

Jarraian, azken bi urteetan Eskolako Agenda 21 programaren barruan hartutako konpromisuak azaltzen dira. Betetzen al dituzue?

KONPROMISOAK	BAI	EZ
Etxeko argiak eta eskolakoak behar ez ditugunean itzali egingo ditugu eta argi naturala gehiago erabiliko dugu.		
Berogailua eta aire girotua behar direnean bakarrik piztuko ditugu (gradu batek kontsumoaren %7a suposatzen baitu) eta hauek piztuta daudenean ateak eta leihoak itxita edukiko ditugu.		
Ikastetxeko argi eta ur kontsumoa murrizten saiatuko gara neurri ezberdinak hartuz (kontsumo gutxiko edo LED bonbillak erabili, kanpainak egin, pegatinekin gogorarazi), eta iturrien erabilera egokia bultzatuko dugu.		
Bide motzak egiteko kotxerik ez dugu hartuko eta ikastetxetik gertu bizi garenok oinez edo bizikletan etorriko gara.		
Garraio publikoa erabiliko dugu bide luzeetan eta inguruko herrietara joateko, eta kotxea hartu beharra dugunean partekatzen ahaleginduko gara.		

LH 5 eta 6
mailak

EROSKETA OHITUREN AZTERKETA

KONPROMISOAK	BAI	EZ
Erosketa gehienak herri barneko dendetan egiten saiatuko gara.		
Poltsa edo tupper banaketak egiten direnean erabili behar ditugunak bakarrik eskatuko ditugu eta ez ditugunak erabiltzen itzuli.		
Eskolan fitxak inprimatu eta hainbeste orri gastatu beharrean ariketak ordenagailuan egiten saiatuko gara.		
Hondakinak ondo bereizten eta konposta egiten jarraituko dugu.		
Material ekologikoa gehiago erabiliko dugu.		
Ikastetxeko nahiz kanpoko berdeguneak eta landaretza zaindu eta errespetatuko ditugu.		
Balio ez duten boligrafo, errotuladore, mugikor, pila, CD ... bilketarako dauden ontziak erabiliko ditugu eta paper gutxiago gastatuko dugu ondo erabiliz.		
Udaletxean antolatzen diren garbiketa eta landaketetan parte hartuko dugu.		
Lorategiak eta belardiak errespetatuko ditugu bertara zaborrik ez botaz, landareak ez puskatuz, zuhaitzak bakean utziz, zakur kakak jasoz, bizikletan derrapeak egiten ez ibiliz...		
Gure etxean dauden landareak ere hobeto zainduko ditugu.		
Jatekoa eramateko (ikastetxera, mendira...) ontzi berrerabilgarriak erabiliko ditugu.		
Oporretara joan behar dugunean, gurasoei urrutira ez joateko eskatuko diegu. Bertan badaude oporrak igarotzeko toki onak.		

LH 5 eta 6
mailak

HERRITARREN EROSKETA OHITUREN AZTERKETA

GALDETEGIA gurasoei edo erosketez arduratzen den familiako bati egiteko

1.- 2017an herritarren kontsumo ohiturak eta hauek eskualdeko merkataritzaz duten iritzia ezagutzeko Urola Erdiko herritarrei galdeategia egin zitzaion. Diagnostiko horren emaitzek diote Azpeitiarren gehiengoak **eguneroko erosketak** (elikagaiak) denda txikietan egiten dituela; baina, **noizbehinkako erosketak** (arropa, oinetakoak, tresna elektronikoak, etxe hornikuntza...) azalera handiko salmenta guneean. **Zure familiakoek, non egiten dituzte erosketak?**

	Azokan	Herriko denda txikietan	Herriko supermerkatuetan	Azalera handiko komertzioetan	Internet bidez
Elikagaiak					
Haragia/arraina					
Arropa eta oinetakoak					
Garbiketa produktuak					
Kosmetika					
Tresna elektronikoak					
Liburuak / aldizkariak					
Jostailuak					

2.- Azalera handiko merkatalguneean nahiz internet bidez egiten den erosketak kopurua handituz doa. Zer eragin izango du honek herriko saltokietan? Zer eragin izango du udalerri bizi bizitzan?

- herriko denda txiki asko itxi egingo dira
- herriko denda txikiak indartu egingo dira
- herrian langabezia gehituko da
- herrian lanpostuak gehituko dira
- herriko dendak istek herrian tristura ekarriko du eta ekonomian eragina izango du

LH 5 eta 6
mailak

EROSKETA OHITUREN AZTERKETA

◆ INTERNET-ENERABILERA

Bestalde, jaso diren emaitzen arabera, kontsumitzaileen %48ak Internet bidez erosi du azken urtean. Hauek diotenez, produktuen eskaintza zabalagoa da, oro har hauen prezioa baxuagoa da eta gainera promozio eskaintzak aurkitzen dira.

3.- Zure familian ba al dago ohiturarik internet bidez erosteko?

Bai Ez Batzuetan

4.- Aurreko galderaren erantzuna baiezkoa bada, zer erosten dute internet bidez?

elikagaiak tresna elektronikoak
 arropa eta oinetakoak liburuak eta idizkariak
 garbiketa produktuak jostailuak
 kosmetika

5.- Nolako produktuak erosten dituzte?

berriak bigarren eskukoak

6.- Elikagaiak erosten badituzte, nolakoak?

Ekologikoak Bertakoak Bestelakoak

7.- Zer eragin izan dezake herriko merkatarriengan erosketak internet bidez egiteak?

herriko denda txikiak indartu egingo dira
 herriko denda txikiak itxi egingo dira
 bertako produktuen salmenta jaitsiko egingo da
 bertako produktuen salmenta igo egingo da
 lanpostuetan zuzenean eta ekonomian orokorrean eragina izango du



4

LH 5 eta 6 mailak

HERRITARREN EROSKETA OHITUREN AZTERKETA

8.- Internet bidez merkeago erosten dela diote herritarrek. Pentsa ezazu zenbat garraio mugitu behar den internet bidez erositako produktu guztiak banatzeko eta zer ondorio izango duen horrek ingurumenean (energiaren kontsumoa, CO2 isurketak...) Hau guztia kontuan izanda, produktua benetan merkeago ateratzen dela uste al duzu? Zer hausnarketa egiten duzu beheko irudia ikusita?

ZENTZURIK BA OTE HORRELA KONTSUMITZEAK?



Camboya (Nom Pen) -
Barcelona



Barcelona - Bilbao



Bilbao - Azpeitia



✈ Barcelona, España - Nom Pen Camboya
Konexioa (eskala 1 edo gehiago) 16h 10 min gutxienez

✈ Barcelona, España - Bilbao, España
Zuzeneko hegaldiak (4-8 egunean) 1h 15 min

🚚 AP-8-tik
Ibilbide azkarrena

54 min
71,8 km

$10.749 \text{ km} * 0,33 \text{ €/km} = 3.547,17 \text{ €}$ kostatzen da.

◆ JASANGARRITASUNA

9.- Zer egiten da zure familian arroparekin, oinetakoekin, tresna elektronikoekin gehiago erabili behar ez dituzuenear?

	Konpondu	Berrerabili	Birziklatu	Errefusara bota
Arropa				
Oinetakoak				
Tresna elektronikoak				
Liburuak eta aldizkariak				
Jostailuak				
Besteak (zehaztu)				

LH 5 eta 6
mailak

EROSKETA OHITUREN AZTERKETA

10.- Zer egiten da zure familian arroparekin, oinetakoekin, tresna elektronikoekin, liburuekin, jostailuekin, hondatzen direnean?

	Konpondu eta berrerabili	Berria erosi
Arropa		
Oinetakoak		
Tresna elektronikoak		
Liburuak eta aldizkariak		
Jostailuak		
Besteak (zehaztu)		

11.-Beste aukera hauek erabiltzeko ohiturarik ba al dago zure familian?

	Trukea	Bigarren eskuko dendak	On-line plataformak (wallapop, vibbo, milanuncios.com...)
Arropa			
Oinetakoak			
Tresna elektronikoak			
Liburuak eta aldizkariak			
Jostailuak			
Besteak (zehaztu)			

LH 5 eta 6
mailak

HERRITARREN EROSKETA OHITUREN AZTERKETA

12.- Aisialdi ohitura berriak (askoz gehiago bidaiatzen da, kirolean gorakada, ostegun eta ostiral arratsaldeak lagunarterako bideratzen dira) eragina al dute zure familiako erosketa ohituretan?

- Bai Ez

13.- Erantzuna baiezkoa bada, zertan?

- erosketa eguna aldatu da
 maiztasuna aldatu da
 erosten ditudan elikadura produktuen kalitatea aldatu dut. Merkeagoak bilatzen ditugu
 aldizkako erosketa egiteko, merkatal gune haundietara noa salneurri baxuago baten bila
 produktu edo marka zehatzak aurkitzen ditut

◆ AZPEITIA; ZURE HERRIA

Azpeitian, batez ere azken urteotan, gero eta denda gehiago irekitzen ari dira, eta herriko merkatalgunea alde zaharretik beste auzoetara zabaltzen ari da. Herri honetan salerosketako gune ugari dago. Kopuru horrek aukera zabalagoa izatea eskaintzen dio erosleari eta, era berean, herritarri inguruko herrietara edo hiriburura mugitu beharrean herrian bertan aukeratzeko modua.

a.- Zure familiakoek nabaritzen al dute herrian zerbitzu, denda, bigarren eskuko dendaren faltarik? Zer falta da? Noren egitekoa da horiek zabaltzea?

.....

.....

b.- Zuk zer denda mota botatzen duzu faltan zure herrian?

.....

.....

c.- Guzti hau jakin eta gero, zeuk zer proposatuko zenuke herritarrek herrian bertan erosketa gehienak egiteko? Nork egin beharko luke?

.....

.....

d.- Zer eskatuko zenioke Udalari herritarrek herrian egin ahal izateko salerosketa guztiak eta horrela herriko kontsumoa indartzeko?

.....

.....